

# igartza

MONUMENTU MULTZOA

**B E A S A I N**





Mendeetako bidaia egiteko aukera ematen dio Igartzako Monumentu Multzoak bisitariari. XIV. mende amaieran du jatorria momentu multzoak, baina, harrezkeroztik, historiaren eta aurrerapen teknologikoen lekuko, eraikin ugari joan da sortzen edo aldatzen. Igartza bisitatzen duenak mendeetan han izan diren ermita, jauregia, presa, errota eta burdinola ezagutu ahal izango ditu, eta, era berean, mendez mende Beasaingo gunegarrantzitsu honetan gertatzen joan denaren berri izango du.

El Conjunto Monumental de Igartza tiene su origen a finales del siglo XIV. Los visitantes que se acerquen hasta aquí, podrán conocer de primera mano la historia de este lugar tan importante y los cambios que se han ido sucediendo a lo largo de los siglos. Los edificios que componen el Conjunto son testigo de todo ello; así, con la visita de la ermita, el palacio, la ferrería, el molino y la presa, es posible conocer la fascinante historia de Igartza.

#### **KOKALEKU ESTRATEGIKOA**

Igartza Monumentu Multzoa beti izan da garrantzi handiko tokia; izan ere, baliabide natural ugari hurbil izateaz gain, garai bakoitzeko bide nagusiak bertan gurutzatu izan dira.

#### **SITUACIÓN ESTRATÉGICA**

Igartza siempre ha sido un lugar muy trascendental; por una parte, porque ha sido una zona próxima a valiosos recursos naturales, y por otro lado, debido a que los caminos más importantes de cada época se han cruzado en ese punto.

## JAUREGIA

Jauregia egiteko agindua María Lopez de Igartza andereak eman zuen XVI. mende hasieran. Oin laukia dauka, eta erdiko patio handi baten inguruan dago antolatuta. Egurrezko egitura ikusgarri baten gainean eraikia, XVI. mendeko arotz-maisuen lanaren erakusgarri bikaina da. Behin barneratuta, armatzeko zurgintzan egindako airetiko galeriak harridura eragiten du, ez baitago horrelako besterik Euskal Herrian.



## EGURREZKO PRESA

Igartzako altxorrik harrigarrietakoa da XVI. mendeko arotz maisuek eraikitako egurrezko presa. 1983ko uholdeen ondorioz, halabeharrez aurkitu zuten, eta, egun, Albaola itsas erakundeak konponduta, bera gordetzeko bereziki prestatutako gela batean dago ikusgai. Garai hartako egur ingeniarietzaren erakusgarri bakarra da Europa osoan.



## ERMITA

Belengo Ermita bidaiarientzako zein bizilaguentzako otoiitz-tokia zen. Egun, Clara Gangutia margolariak egindako koadroak janzen du. Europa osoan zabaldua dagoen kristau ikonografiari eutsita, emakume bat haurrari bularra ematen irudikatu du bertan; alabaina, beste kutsu bat ere eman zion, eta euskal mitologiari eta Igartzako historiari ere keinu egiten die koadroak.



## ERROTA · BURDINOLA

Presaren laguntzat aldaparora bideratutako urak errotako zein burdinolako turtukiak mugiarazi izan ditu mendeetan. Bere sorreratik, Igartzan baliabide naturalak baliatzen jakin zuten. Hala, batetik, burdingintzan aritu ziren, eta, bestetik, irina eta ogia egin ahal izateko inguruko errotarik garrantzitsuena izan dute Igartzan. Oraindik ere martxan ikus daiteke errota.



## EL PALACIO

María Lopez de Igartza ordenó construir el palacio a principios del siglo XVI. El palacio tiene una base cuadrada, y se organiza en torno a un gran patio central. Construido sobre una espectacular estructura de madera, es una buena muestra del trabajo que realizaban los maestros carpinteros del siglo XVI. Una vez dentro, sorprende la galería aérea realizada en carpintería de armar, única en el País Vasco.

## PRESA DE MADERA

La presa de madera construida por los maestros carpinteros en el siglo XVI es uno de los tesoros más sorprendentes del conjunto. Tras las inundaciones de 1983, fue hallada casi por azar. En la actualidad, restaurada por la sociedad Albaola, se encuentra en una sala especialmente preparada para su conservación. Es la única muestra de ingeniería de esa época que se puede visitar en toda Europa.

## ERMITA

La ermita fue un lugar de oración tanto para los viajeros que pasaban por Igartza como para los vecinos de la zona. Un cuadro de la pintora Clara Gangutia adorna en la actualidad el altar. La imagen conserva la clásica iconografía cristiana extendida por Europa, pero haciendo un guiño a la mitología vasca y a la historia de Igartza.

## MOLINO · FERRERÍA

Durante siglos, la presa desvió el agua hacia el canal para poner en funcionamiento las turbinas de la ferrería y el molino. Ya desde su origen, en Igartza, supieron aprovechar los recursos naturales que tenían a su disposición. Por un lado trabajaron el hierro, y por otro, tuvieron uno de los molinos más importantes de la zona para hacer harina y pan. Todavía es posible ver el molino en funcionamiento.

# igartza

MONUMENTU MULTZOA

**B E A S A I N**



**DISTANTZIAK:** DONOSTIAtik 44km · VITORIA-GASTEIZtik 70km · IRUÑEAtik 75km · BILBOtik 80km



**Irailaren 16tik  
Ekainaren 30era**

Larunbat, igande eta jai  
egunetan  
11:00-14:00

**Uztailaren 1etik  
Irailaren 15era**

Asteazkenetik igandera:  
11:00-14:00  
16:00-19:00



**Bisita gidatuak**

11:30 - 13:00  
16:30 - 18:00

**4 €**



**Igartzako Monumentu  
Multzoa**

Igartza Oleta 1  
943 08 77 98  
igartza@beasain.eus  
[www.igartza.eus](http://www.igartza.eus)

